



KANALAK

Hainbat kanalen bitartez gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea lortuko dugu, gure balio proposamena helarazteko. Hiru kanal desberdin daude: Komunikazio-kanala, salmenta-kanala eta banaketa-kanala.

Salmenta-kanalarekin hasiz, gure helburua gure produktua ahalik eta eskuragarriena izatea da, eta edonora etxetresna elektrikoak erostera joatean gure produktua aurkitzea.

Gure produktua hasieratik bultzada bat izateko, Ikea edo jada famatuak diren enpresen bitartez salduko dugu. Denda hauek jada ospetsuak izango direnez, produktua ezagutzeko aukera gehiago egongo dira. Ikearen eraikinean gure produktuari zuzendutako zonaldeak prestatuko ditugu. Geroago gure web orrialdea sortuko dugu, hemen gure produktuari buruzko informazioa (bezeroari arreta, etab...) eta produktua erosteko aukerak eskainiko ditugu.

Banaketa-kanalari dagokionez, gure produktua instalatzeko enpresa bat azpikontratatuko dugu, mantenuarakoz berdin.

Komunikazio-kanala, aldiz, gehienbat web orrian oinarrituko da, bezero-harremanetarako leku bat izango du eta.